EUSKARA

KIROLAREN EREMUAN EUSKARA SUSTATZEA

ZERGATIK?

Euskararen normalizazio prozesuan esparru informala eta aisia funtsezkoak dira eta, horien artean kirola. Kirolak gazteengan duen eragin positiboagatik eta dituen ezaugarriengatik, garrantzitsua da bertan eragitea. Gazteei zuzendutako kirola babestutako esparrua dela esan ohi da, hau da, ez da eskola bezain zurruna, baina ez da kalea bezain askea. Gazteentzat pisu handia duen eremua izan ohi da kluba.

Hori dela eta, gazteek klubetan eta kirolean euskaraz aritzeko aukera izatea, entrenamenduak euskaraz izatea, hizkuntza paisaia euskarazkoa izatea, erreferente euskaldunak izatea... oso garrantzitsua da hizkuntza normalizaziorako eta horretan guztian eragitea estrategikoa da.

Ondorioz, klubetan euskaraz entrenatu eta jarduteko baldintza berritzaileak sortzen laguntzea da proiektu honetan proposatzen dena.

NORK?

Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiak

ZERTARAKO?

Klubetan eta gazteen kirol esparruan euskararen presentzia areagotzea da helburua, beti ere planteamendu berritzaile eta integral batean txertatuta dagoela. Aniztasun kulturala, sexuala, linguistikoa eta ardura maila desberdinak kontuan hartuko dituen planteamendu orokorra lortzea da bilatzen dena. Zehazki udal, klub eta abarreko desberdinetan aplikatzeko balioko duena.

NOLA?

Udal desberdinetako klubetan eta kirol elkarteetan aplikatzeko moduko planteamendu integral bat diseinatzea proposatzen da. Planteamendu horrek euskararen erabilera izan behar du ardatz nagusia, eta gainontzeko aldagaiak ere erdigunean kokatu beharko ditu: aniztasun kulturala, aniztasun sexuala, berrikuntza, klubaren egitura eta ardura maila desberdinak... Hori diseinatzeko eta zabaltzeko 100.000 eurotako beka bat proposatzen da.

NON?

Bertakoa, Eskualdekoa, Lurraldekoa

NOIZ?

2022/10/10

100.000€